

DONOSTIA KULTURA EEPren IKASTAROEN PROGRAMAK DISEINATZEKO ETA ESKAINTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA

SARRERAKO ZENTRO N.º
2013 / 22

1. XEDEA

Lizitazio honen xedea da enpresa bat edo gehiago kontratatzea, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren (DONOSTIA KULTURA aurrerantzean) kultur etxeetan antolatzen diren ikastaro eta tailerren programak diseinatzeko eta eskaintzeko zerbitzua eskaintzeko, betiere Orri honetan eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orrian aurreikusten denaren arabera.

Ikastaroen programak diseinatzeko zerbitzuan barne hartzen dira, bai urtean eskainiko diren ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorra, bai ikastaro bakoitzari dagozkion programen diseinua.

Dena den, kontratua indarrean sartu eta lehen urtean, ez da egingo eskaini beharreko ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorraren zerbitzua, eta DONOSTIA KULTURAK egingo du diseinua. Lehen urte horretan, DONOSTIA KULTURAK zehaztutako ikastaroen programa zehatzak diseinatuko dira.

Lizitazio honen xedea honako lote hauetan bereizten da:

- **1. lotea: antzerki-ikastaroak, haur eta gazteentzat zein helduentzat.**
- **2. lotea: haur eta gazteentzako ikastaroak (1. loteko antzerki-ikastaroak kanpo);** gutxienez, honako gai edo diziplina hauei buruzkoak izango dira:
 - Arte plastikoak
 - Eskulanak
 - Musika eta dantza
 - Osasuna eta autoezagutza
 - Argazkilaritza
 - Giza Zientziak
 - Gizarte-gaiak
 - Hainbat gai: ingurumena, sukaldaritza eta abar.
- **3. lotea: helduentzako ikastaroak (1. loteko antzerki-ikastaroak kanpo);** gutxienez, honako gai edo diziplina hauei buruzkoak izango dira:
 - Arte plastikoak
 - Eskulanak
 - Musika eta dantza
 - Osasuna eta autoezagutza
 - Argazkilaritza
 - Giza Zientziak
 - Gizarte-gaiak
 - Hainbat gai: ingurumena, sukaldaritza eta abar.

Esleipendunek eskaini beharreko zerbitzuei dagokienez, urtean gutxienez 150 ordu izango dira 1. lotearen kasuan; urtean gutxienez 1.350 ordu izango dira 2. lotearen kasuan; eta urtean gutxienez 3.500 ordu izango dira 3. lotearen kasuan. Gehienezkoei dagokienez, urtean 345 ordu izango dira, gehienez ere, 1. lotearen kasuan; urtean 700 ordu izango dira 2. lotearen kasuan; eta urtean 8.675 ordu izango dira, amaitzeko, 3. lotearen kasuan.

Enpresa lizitatzailleek lote bat, bi edo hiruetarako eskaintzak aurkez ditzakete.

Loteak banaka esleituko dira eta gerta daiteke enpresa esleipendun bat, bi edo hiruri esleitzea bereizirik.

Lizitazio honetatik kanpo daude berariaz, Casares Kultur Etxeko irratiarekin eta telebistarekin erlazionatutako ikastaroak eta Larrotxene Kultur Etxeko bideoarekin eta zinemarekin erlazionatutakoak.

Bestalde, DONOSTIA KULTURAK eskumena du mintegi, tailer edo bestelako ikastaro jakin batzuk antolatzeke ardura bere gain hartzeko, baldin eta lantzen den edukia eta ezaugarriak direla-eta (DONOSTIA KULTURAK bakarrik erabakiko ditu kasuak), profesional edo artista jakin batek eskaini beharrekoak direla uste badu. Ikastaro horiek egilearekin edo esleipendun suertatzen diren enpresarekin edo enpresa desberdinekin kontratatuko dira, kasuan-kasuan dagokion prozedura jarraituz.

Aukera dago ikastaroak DONOSTIA KULTURAREN mendeko sozietateen instalazioetan, alegia, Victoria Eugenia, SA eta San Telmo Museoa, SAREN instalazioetan egiteko.

2. PROGRAMAK DISEINATZEKO ZERBITZUA

Ikastaroen programak diseinatzeke zerbitzua eskaintzeko, enpresa esleipendun bakoitzak kasuan-kasuan ikasturtean deituko diren ikastaroen programa orokorraren proposamen bat aurkeztuko du, urte bakoitzaren apirila amaitu baino lehen. DONOSTIA KULTURAK proposamen hori aztertuko du, eta egokitzat jotzen dituen aldaketak egin eta gero, baimendu egingo du, hala badagokio. Baimena ematen badu, enpresa esleipendunak hilabete bateko epea edukiko du, baimena ematen denetik, baimendutako proposameneko ikastaroen programa zehatzak aurkezteke. Kasu horretan ere, DONOSTIA KULTURAREN berariazko baimena lortu behar da, egokitzat jotzen dituen aldaketak egin eta gero.

Aurretik aipatutakoa ez da ezarriko kontratua indarrean sartzen den lehen urtean. Horrela, aurreko Klausularen hirugarren paragrafoan jada aurreikusitakoaren arabera, DONOSTIA KULTURAK diseinatuko ditu programak.

Bestalde, ikastaroen programa zehatzen proposamenean, kasuan-kasuan programa eskaintzeko erabiliko diren materialen proposamena barne hartuko da. Enpresa esleipendunak bertaratzen direnei hornitu beharreko materialak ere barne hartuko dira, eta, edozein kasutan, DONOSTIA KULTURAK berariaz baimendutakoak izango dira. Material horien kostua DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunari ordainduko dio. Enpresa esleipendunak materiala eskuratzeko izandako kostuaren parekoa izango da, eta kostu hori behar den bezala justifikatuko da DONOSTIA KULTURAREN aurrean, ordaindu aurretik zein ondoren.

Klausula honen aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, esleipendunek ikastaroen diseinu bat aurkeztuko dute urtean behin, orientazio moduan, aurreko Klausulako laugarren paragrafoan aurreikusitako gaiei buruz eta Kultur Etxe bakoitzerako, ikastaroa eskaintzeko lekua edozein delarik:

- Aiete Kultur Etxea
- Casares-Tomasene Kultur Etxea
- Egia Kultur Etxea
- Ernest Lluch Kultur Etxea
- Larrotxene Kultur Etxea
- Intxaurren Kultur Etxea
- Loiola Kultur Etxea

- Lugaritz Kultur Etxea
- Okendo Kultur Etxea

Horretarako, kontuan hartuko dituzte, gutxienez, herritarren lehentasunak eta beharrak, gai-multzoko desberdinen arteko oreka eta kultur etxe desberdinen artekoa, izan ere, kultur etxe bakoitzaren ezaugarri bereziak kontuan hartzen badira lortuko da herritarrei eskaintza orekatsu bat egitea.

Bestalde, kontuan hartuko dira, hala badagokio, Kultur Etxe bakoitzaren espezialitateak.

Aurreko bi paragrafoetan adierazitakoaren ondorioetarako, enpresa kontratistak/ek informazioa eskuratu ahal izango du/te DONOSTIA KULTURAREN web-ean ([...]) argitaratutako liburuxkan (pdf formatuan).

Eskaintzak ziurtatu egingo du helduentzako ikastaro guztiak euskaraz edo gaztelaniaz gauzatzeko aukera. Haur eta gazteentzako ikastaroen eskaintza euskaraz izango da.

Xede horretarako, esleipendunek DONOSTIA KULTURATik informazioa jaso ahal izango dute (Kultur Ekintzarako Zerbitzua).

Kultur Etxe bakoitzerako ikastaroen diseinuarekin batera, esleipendunek programak landuko dituzte ikastaro bakoitzerako, eta honako alderdi hauek barne hartuko dituzte, gutxienez:

- Helburuak
- Edukia
- Metodologia, ebaluazio-sistemak
- Materiala: deskribapena eta kostua
- Ikastaroaren kostua
- Saioen egunak eta orduak, oporrak
- Interesgarritzat jotzen diren bestelako datuak

Esleipendunek ikasturte amaierako jarduerak proposa ditzakete, egoki irizten badiote (egindako lanen erakusketak eta abar). Horrela bada, begiraleak jarduera horiek prestatzeko behar dituen orduak adieraziko dira.

Bestalde, DONOSTIA KULTURAK eska dezake ikasturte amaierako jarduerak antolatzeko. Horrela bada, kasuan-kasuan ikastaroetarako ezarritako prezioa/orduaren arabera ordainduko dira.

DONOSTIA KULTURAK erabakiko du ikastaroa gauzatzeko beharrezkoa den gutxieneko partaide kopurua. DONOSTIA KULTURAK erabakiko du, halaber, ikastaro bakoitzeko gehienezko partaide kopurua.

Esleipendunek urtean zehar zerbitzuaren balorazioak eta ebaluazioak egin eta DONOSTIA KULTURARI aurkeztu behar dizkiote.

Lehenengoa urte bakoitzaren urtarrilaren 15a baino lehen egingo da, eta ikasturteko lehen hiruhilekoan (urria, azaroa eta abendua) eskainitako ikastaroen emaitza baloratuko da: partaideen onarpena eta asetasuna, ikastaro bakoitzaren garapena eta esleipendunek interesgarritzat jotzen duten beste edozein alderdi, edo DONOSTIA KULTURAK eskatzen duen beste edozein.

Ikastaroak amaitzean egingo da bigarrena. Kasu honetan, ikastaro bakoitza eta diseinu orokorra sakonki baloratuko eta ebaluatuko dira.

Klausula honetan xedatutakoa ezarriko da ikastaroen diseinu orokorraren proposamenean eta esleipendunek kontratua gauzatzeko urtero egiten duten

programa zehatzen proposamenean, baita lizitatzailleak bere proposamen teknikoan egiten duen ariketa simulatuan ere, betiere Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orriko 13. Klausulan xedatutakoaren arabera.

3. ZERBITZUAK ESKAINIKO DITUZTEN LANGILEEI DAGOKIENEZ

Ikastaroen diseinuaren urteko proposamenean, esleipendunek ikastaro bakoitza eskaintzeko atxikiko duten lan-ekipoaren deskribapena egingo dute. Ekipoaren atxikipena DONOSTIA KULTURAK onartu behar du, kasuan-kasuan dagozkion aldaketak egin eta gero, hala badagokio.

Xede horretarako, curriculum vitae-a, titulazioak, hizkuntzen ezagupena (garrantzi berezia du kontratuaren xede diren zerbitzuak eskainiko dituen lan-ekipoko kideek euskaraz zein gaztelaniaz lan egiteko gaitasuna edukitzea) eta beste edozein berariazko ezagupen zein eskainitako kontratuaren xedearen antzekoak diren zerbitzuak adieraziko dira.

DONOSTIA KULTURAK eskubidea du beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio gehigarria eskatzeko, erakunde kontratugilea/k eta ikastaro bakoitzaren eskaintzan nahastutako entitatea/k eta/edo atxikitako pertsonak lotzen dituzten kontratazioek legea betetzen dutela ziurtatzeko.

Proposamenean irakasle(ar)en euskara-mailaren ziurtagiriak aurkeztuko dira, bai euskaraz eskaintzen diren ikastaroen kasuan, bai euskara ezagutzea derrigorrezkoa ez den ikastaroen kasuan. Ikastaroa euskaraz bada, B2 maila, horren baliokidea den beste bat edo maila altuago bat dutela ziurtatuko da.

Euskararen ezagupen-maila ziurtatu ezin bada, DONOSTIA KULTURAK maila ziurtatzeko beste proba bat/batzuk egitea erabaki dezake. Irakasleak proba horietan beharrezkoa den maila ziurtatzen ez badu, esleipendunek pertsona horren ordez beste bat aurkez dezakete ikastaroa eskaintzeko.

Gaztelania eta euskara ez den beste hizkuntza batean (ingelesa, zeinuen hizkuntza eta abar) eskaintzen diren ikastaroei dagokienez, B2 maila, horren baliokidea den beste bat edo maila altuago bat dutela ziurtatuko da.

Enpresa esleipendunek dokumentu batean islatuko dute ikastaroak eskainiko dituzten pertsonen jarduera-protokoloa, bai enpresa esleipendunaren barruan bai ikastaroak eskaintzen diren kultur etxeetan erabiltzeko. DONOSTIA KULTURAK onartu behar du dokumentu hori.

DONOSTIA KULTURAK aukera du langileak zerbitzutik kanpo uzteko eskatzeko, baldin eta dagokien lana behar bezalako ardura, gaitasun tekniko eta eraginkortasunez egiten ez badute edo zerbitzuak eskaintzean ardura nahikoa ez badute, betiere Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orriko 21. Klausulan ezarritakoaren arabera.

Donostia / San Sebastián, 2013ko ekainaren 22a


donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura
EEP - EPE

Juan Carlos Izagirre Hortelano jauna

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN lehendakaria